

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mari Cruz Velez de Mendizabal Arana

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1912-2010)*

Aurkibidea



Biografia



Arrasateko Garibai kalean jaio zen. Aita arabarra eta ama Arrasatekoa zituen. Hamabi urterekin Santanderreko Mertzedarien eskolan barneko ikasle sartu zen. Bost urte han eman eta gero, etxera itzuli eta Zerrajeran bulegari lanean jardun zuen pare bat urtez. Gero Zumarragako seminarioan nobiziatu eta Oiartzunera bidali zuten. Hango eskolan Jose Manuel Azkuna eta Jose Mari Lekuona izan zituen ikasle, besteak beste. Gerrak bertan harrapatu zuen. Gerra denboran eta gerraostean Saturraraneke kartzelan, Santanderko bi kartzelatan eta Valladolideko baten ere egin zuen lan, ekonomatoen arduradun modura. Bere bizitzako azken urteak, Eskoriatzako Mertzedariekin eman zituen.

Zintak

ARR-129

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-01-27
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Zumarragan moja sartu zen

- **Erref:** ARR-129/004
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:04:53. **Bukatu:** 00:07:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

20-21 urterekin moja sartu zen Zumarragan. Nobiziatua egindakoan, Oiartzunera joan zen. Han eskolak ematen aritu zen umeei.

2. Azkue eta Lekuonaren irakasle

- **Erref:** ARR-129/005
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:09:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Hainbat famaturen irakasle izan zen; Jose Manuel Azkue organujolea eta Juan Mari Lekuona izan zituen ikasle, besteak beste.

3. Oiartzungo konbentua erietxe gerran

- **Erref:** ARR-129/006
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:09:21. **Bukatu:** 00:12:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra garaian Oiartzunen zegoen. Irundik herria bonbardatzen zuten eta haien etxea ere jo zuen bonba batek. Emakume soldaduak gogoan ditu, beldurtu egiten zen haiekin. Zaurituak sendatzen aritzen ziren.

4. Eskoriatzan 25 umezurtz konbentuan

- **Erref:** ARR-129/009
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:17:45. **Bukatu:** 00:21:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Eskoriatzan gerraostean oso egoera txarrean zeuden komentuan. 25 neskatila ekarri zituzten Madrildik bertan hazi eta hezteko; gehienak fusilatuen alabak. Haien gastuak estatuak ordaintzen zituen.

5. Saturrarango kartzela

- **Erref:** ARR-129/011
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:23:39. **Bukatu:** 00:25:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Eskoriatzatik Santanderrera joan zen, arrantzaleen auzora. Handik Saturraranera joan zen. (Hango bizipenei buruzko pelikularen aipamena egiten du).

6. Saturrarango kartzelan lanean

- **Erref:** ARR-129/012
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:25:35. **Bukatu:** 00:27:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Saturrarango kartzelan egon zen moja. Ekonomatuan lan egiten zuen. Emakumeak preso zeuden bertan, haien umeekin. Asturiaskoak ziren asko.</p>

7. Santanderreko kartzelan lanean

- **Erref:** ARR-129/013
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:27:25. **Bukatu:** 00:31:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Santanderreko kartzelan lanean aritu zen, tabakaleran. Ia lau mila preso zeuden. Oso gauza gogorak ikusi zituen, garrote bilarekin presoak hiltzen, adibidez. Preso euskaldun bati lagundu ziola gogoan du.

8. Santanderreko kartzelako ekonomatua

- **Erref:** ARR-129/015
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:33:12. **Bukatu:** 00:37:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Santanderren Tabakaleran egon ziren presoak. Bera ekonomatuaz arduratzen zen. Zer saltzen zuten eta nola azaltzen du.

9. Gaztetan debekuagatik dantzarik ez

- **Erref:** ARR-129/018
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:40:35. **Bukatu:** 00:41:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Erromeriara dantzara joatea debekatua zegoen eta ez zen joaten. "Mariaren Alabak" kongregaziokoa zen. Jai egunez zer egiten zuen kontatzen du.

10. Orotariko giltzaren asmatzailea

- **Erref:** ARR-129/019
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:41:49. **Bukatu:** 00:43:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

"Unión Cerrajera"ko kontramaisua eta akzioduna zen aita. Hark asmatu omen zuen orotariko giltza.

11. Saturranango kartzelan 30 preso

- **Erref:** ARR-129/023
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:47:38. **Bukatu:** 00:51:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Saturrarango kartzelan ekonomatuan lan egin zuen. 30 emakume preso zeuden, beraien umeekin. Lau kartzelatan lan egin zuen.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com